



b

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

570. zkia.

XIV. urtea

2006ko maiatzaren 5a



Lojantzi, Nazional Mailarako igoera fasean

**Nesken eskubaloi taldea
lorpen handienaren atarian**

autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Deba Barrena
maiatzak 11

ELGOIBAR

Makina Erremintaren
Institulua (IMH)

Ordutegia:
18:00-20:00

Zer eduki beharko luke nire enpresaren Webguneak?

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Nire enpresak **Interneten egon behar** du, baina, nola? **Webgune eraginkorra eta zuzena** izateko kontuan hartu behar duzun guztia. Jarraitu beharreko oinarriko gomendioak.
Domeinua. Webgunearen diseinua.

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Autobuzaketa.



Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



ERAZKOI (2011/2012)
GOBERNUA (2012)



Operazioen Foru Aldekoa
Egunkaria Foru de Gipuzkoa

euskadi
Euzkadiaren Erakundeak

e-gipuzkoa **SPRI**



Gure erakusketa bisita ezazu!



Zatoz koltxoi nordiko berriak ikustera!

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



AINHOA MENDIBIL



AMAIA GORROTXATEGI

ZOZOAK BELEARI...

Aupa bele:

Kontuz Amaia!! Kontuz!

Trafikatzaile bat atzean izango duzu zapatuan etxetik irten orduko. Edo bestela San Frantzisko kaleko edozein izkinatan egongo da zure zain. Izango du denetik (baina...denetik, denetik eeh...) eta zuk izango duzu dirua (baina, mordoa eeh...) eta erosiko diozu edozer (eta bai noski, edozer) eta joango zara King-Kong atzera, edo Maalako etxe berrietara (denok baitakigu leku bakoitza zertarako den) eta pasako duzu super ondo!! Hori bai, ezingo duzu ondo pasatu holakorik hartu gabe, Elgoibarren ez.

Beno, eta gero botaka egiteko ordua iritsiko da, eta egingo duzu, ez pentsa!

A! Esatea ahaztu dut baina ezer baino lehen herriko edozein bazterretan litroak egingo dituzu eta dena zikin zikin eginda jaitsiko zara tabernetara.

Eta hori guztia zapatuetan hemen gertatzea erabakitzen duzulako. Ezingo zara izan juergak era "naturalago" batean (barkatuko dit mindu denak) botako dituen elgoibartarra. Hori hemen? Baita zera ere! Ikusiko dituzu farolak apurtuta astero, gure herrian horren maiteak diren lorontziak lurrean, botaka edozein lekutan... eta sartuko zaituzte hori egin dutenen multzoan.

Eta telebistan, guri buruz berbetan, erreportaia bukatuko dute esanaz: "La juventud está perdida, totalmente perdida". Zu bai? Ni ez.

«Eta telebistan, guri buruz berbetan!»

AINHOA

«Ez zintudan telebistan ikusi, ni ere ez nintzen agertu»

AMAIA

Hori da!!!!

Gazte gara gazte, ta ez gaude konforme!!!!

Gaur barkatuko didazu baina ez naiz oso argi jaiki. Oraindik gramo erdi falta zait sartzeko eta badakizu... Atzoko karmeloek kalte egin zidaten, zapatuan Ermuako "kabroi" batek sudurra hautsi zidan bere neska gaizki begiratu omen nuelako... eta bai, lorontzi bat apurtu nuen!!! Ni izan nintzen, aitortzen dut!!! Hori gutxi balitz, uffaaa... problemoia!! Jaten ematen zidan bizilaguna atxilotu dute 5000 speed pastila eskuan!!! Nola biziraun behar dut nik orain??

Ez zintudan telebistan ikusi... ni ere ez nintzen agertu... ez eta mutil hura sudurra berotzen azaldu zen unean, Elgoibarren zu eta ni lez gorputzean odola besterik ez genuela geunden ehundaka gazteak.

Nik ez diot telebistan agertu ziren gazteak han ez zeudenik, baina niri amak txikitari esaten zidan bezala, gezurrik borobilena egia erdia da!!

Euskaldun guztiak terroristak garela entzuteak horrenbeste amorru ematen diot esan zuen: "La juventud (en general) está perdida, totalmente perdida". Bale ba.

Ez dut botiloian soilik pentsatzen, inoiz ez dut hautsik arnastu, eta "alzola" eskuan makaleko parreak bota izan ditut. Gaztea naiz. Eta zorionez ez naiz salbuespen bat.

“HAURRAK EZ DIRA INOIZ OSO TREBEAK IZAN EUREN GURASOEI ENTZUTEN, BAINA BETI IMITATU IZAN DITUZTE

James Baldwin

Gaztea naiz eta harro nago!

Gazteok egoera larria pairatzen dugula ez da berria euskal gizarte honetan. Gazte eta errebelde izatea garesti ordaindu beharreko zigorra bilakatu dute. Errepresioa, etxebizitzaren arazoa, pobrezia edo lan baldintza kaxkarrena, astialdi nahiz aisialdia garatzeko aukera gabezia, kontrol soziala nahiz polizia etabar, ez dira kasualitatez sortzen diren arazoak.

Gazteok kolektibo gisa bizi dugun zanpaketaren ondorio dira, gazteok eskubidegabe uzten gaituen ukapena eta zanpaketa osoa.

Arazo hauek gainditzeko, badugu gure alternatiba: Independentzia aldarrikatuko dugu. Horrela herri aske baten, euskal gazteriak beraien arazo eta hauen konponbidez askatasun osoz hitz egin eta horiek gainditu ahal izango ditu. Independentziaren bitartez, borrokaz aske biziz, askatasun eremuak irabazteko bidea eta iparra lortuko ditugu.

Horretarako, maiatzak 11n, gaueko 21:00etan, Kultur Etxeko sotoan egingo den alternatibaren aurkezpenean azaltzeko deia luzatzen dizuegu. Gora euskal gazteria!!!

A.M. - X3432141Z

Sandwich-a denontzat

Azkenaldian polemika asko pilatu zaizkio Udalari, hala ere, lotsagarrienera-riko bati buruz ez dugu ezer irakurri. Herriko biztanle sufrituari gure autoa aparkatzeko aukerak murrizten zaizkigun bitartean eta udaltzainei boligrafoko tinta gastatzen zaien bitartean (autoa udaltzaintzat egokia den toki batean aparkatzea benetako "odisea" bilakatu da), udaletxeko zenbait kargu pribilegiatuari ez die lotsarik ematen Euskadiko Kutxaren parean edo gure herri honetako plazaren erdian autoa lagatzea.

Bateko plenoa, besteko ogia edo aspirinak presaka erosi beharra, hango aldikaria eta ondorengo capuchinoa ez da beraiantzat arazo, hori dute eta beraien parking pribatua. Nola ikusi eta konprenituko dute hauek herriko aparkaleku arazoa? Geuk aldiz, hor dugu, Sigman, horren ongi saldu diguten "sandwich" erako aparkalekua, etxetik hurbil, hori diote behintzat. Hor aparkatu aurretik 20 minutuan hor dihardugu jira biraka San Ignazio eta Santa Anan hurbilgoko leku baten bila, ostegunetako dendariak bezala, ez baikara erraz konformatzen diren horietakoak. Baina azkenean, ala! Sigmara eta gainera eskerrak eman behar!!

Bueltakoan hor ikusten dugu udaltzaina pibote metalikoak erretiratzen betiko BMW, SEAT eta CITROËN-ari paso emateko. Jada ez dakigu nola esan baina komentatu beharra ere ez al da lotsagarria?

PD: Ejenplua eman!

A.O.M. 72581184-s
I.A.A. 72585222-M

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala **KAZETARIK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Irujo, Amaia Erkizia **MARKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Anton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gumutxaga, Imanol Larañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maiolen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe KE, Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESABA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INFRIMATEGA** Gertu **TIRADA** 4.510 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

- **Larunbatetan San Frantzisko kaleko dendetako kristalak puskatzea ohitura bihurtzen ari da:** "Larunbatetan San Frantzisko kalean gertatzen dena harrigarria da. Beti ibili izan da jendea parrandan, baina azkenaldian borrokagune bihurtu da gure kalea. Kalera ateratzeko beldurrez bizi gara, lo egiteko arazoak ditugu eta gainera, dendetako kristalak apurtzen dituzte. Ez dakigu zein den irtenbidea, baina berandu baino lehen neurriak hartzea komeni dela uste dugu".

- **San Roke auzora igotzeko bidea zuloz beteta dago:** "Estazio kaletik San Roke auzora igotzeko bidea oso egoera txarrean dago. Jende mordo bizi da San Roken eta auto asko ibiltzen da bide honetan, normala da asfaltoa izorratzea, baina noizean behin konpontzea ere ez legoke gaizki".



- **Azkoitiko Rallysprintaren ostean, Azkarateko bidea zikinkeriz beteta geratu zen:** "Lotsagarria benetan, ez dago beste hitzik igandean aurkitu genuena deskribatzeko. Zapatu arratsaldean izan zen Azkoitiko Rallysprinta eta domekan, mendira gindoazela, bide guztiak zaborrez beteta zegoen. Jendeak ez dauka naturarekiko inolako errespeturik. Jan eta edatea ondo dago, baina hainbesteko lana al da plastikozko poltsa bat eramane eta zaborra bertan biltzea? Biharko San Migeleko rallysprintean kontu handiagoz ibiltzea eskatuko nioke jendeari. Eskerrik asko".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 943 74 41 12

komikia

Hil da gero... Bakaladero

Enpresari bultzada eman nahi izatea ondo dago, baina sarrerako goxokiak astaperrexilagatik ordezkatzea ez dut uste bide onena denik.



Kokoe 057

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

Udal Euskaltegia (II)

Ikasleak komunikaziora bultzatzeko, eta hauek gure herrian eta ohituretan integratzeko helburuarekin, Udal Euskaltegiak zenbait jarduera antolatzen jardun du 83tik hona. Besteak beste, diapositiba emanaldiak, hitzaldiak, pertsona ezagunekin elkarriketak, txangoak, barnetegiak, afariak eta abar.

Urteotan ikasleen tipologian aldaketa handiak izan direla aipatu digute Udal Euskaltegikoek: "garai batean euskara ikastera zetorren ikaslearen helburua eta gaur egun datorrenarena, oso bestelakoa dela esan dezakegu. Izan ere, gaur egun, lanpostua lortzeko asmoarekin etortzen da ikasle asko, eta, egia esan, honek ez dio mesede handirik egiten askotan ikaste prozesuari." Halere, euskara ikastera bultzatzen duten motibazio klase guztiak balekoak direla esan digute Udal Euskaltegikoek. Motibazioa edozein izanda ere, garrantzitsuena jendeak euskara ikasteko arazoak edo motiboak izatea da.

1993an Deba, Mutriku eta Elgoibarko udal euskaltegiak Debabe Udal Euskaltegia osatu zuten. Deba-Mutriku euskaltegian ikasle kopurua txikia zegoela ikusirik, Elgoibarko euskaltegiarekin bat egitea erabaki zuten hiru herrietako udalek. Eta hiruretatik ikasle gehien jasotzen zuena Elgoibarko euskaltegia zenez, administrazio kontuak Elgoibarko euskaltegiaren arduraren geratu ziren. Elgoibarko euskaltegia da mankomunitateko erdigunea, eta zuzendaria ere Elgoibarkoa izan ohi da.

Etorkizunerako erronken artean, besteak beste, honako hauek nabarmendu dizkigute:

- Curriculum berriaren ekarpenak gureganatu eta aplikatzea.
- Euskalduntzearen oinarriko curriculumaren 4. mailarekin hastea.
- Teknologia berriak gure jardueran txertatzea.
- Sektore edo ikasleen beharren araberrako eskaintzak egitea.



ASIER GURRUTXAGA

AEKKO
IKASLE OHIA

Guraso euskaldunak eduki arren, Asier Gurrutxagak erdal giroan bizi izan zuen bere haurtzaroa. Ikasketak erderaz egin zituen eta auzoko lagunekin ere gaztekeraz berba egiten zuen. Lagun euskaldunak egin zituenean, euskara berreskuratzeke unea zela erabaki zuen.

• Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Ni Sigmakoa naiz eta hango lagunak erdaldunak dira, beraiekin dena egiten nuen erderaz eta ikasketak guztiak ere gaztekeraz egin ditut. Gurasoak euskaldunak dira eta beraien artean beti hitz egin izan dute euskaraz, baina seme-alabekin erderaz egiten zuten. Lagun euskaldunak egin nituenean somatu nuen euskara ikasteko beharra.

• Orain egiten al duzu euskaraz etxean?

Amarekin egiten dut euskaraz eta ilobekin ere bai, baina nire arrebeekin erderaz hitz egiten jarraitzen dut. Ohiturak aldatzea oso zaila da. Lanetan saiatzen naiz euskaraz egiten, baina erdaldunen bat gerturatzeko bada, erderara jotzen dugu. Askotan gertatzen da hori, er-

daldunek ikasi beharrean, euskaldunok egiten dugu erderaz.

• Gustatu al zaudete lortutako euskara mailarekin?

Gustatuko litzaidake gehiago jakitea, baina gustura nago. Egunkaria irakurtzeko gai naiz, dena ulertzen dut eta hitz egiteko ere, ondo moldatzen naiz. EGA azterketara hiru aldiz aurkeztu naiz eta idatzizko frogan beti huts egin dut. Aurten saiatuko naiz perfilen bat ateratzen nire kabuz, eta egunen baten prestatuko dut berriro EGA.

• Zaila al da euskara ikastea?

Niri ez zitzaidan zaila egin. Oinarri bat baneukan eta berreskuratze lana izan zen gehiago. Gainera borondatez eman nuen izena euskaltegian eta hori oso garrantzitsua da, norberak nahi duena gustura egiten da-eta.



*Maiatzak ditu bihar sei egun
Olatzen duzue meza,
zuen ezkontzan jaso zazue
Santa Agedaren babesa.*



*Soinu txiki ta pandero hotsez
bada kantua ta dantza,
trikiti doinuz mila zorion
zuei Ekaitz ta Arantxa.*

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

[AKORDATZEN NAIZ]



JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

«Dirua nola izendatu:»

Durua, bost pezetakua, gaur bost eurokua dan modukua. Bost zentimokuari *txakur txikixa* deitzen giñon eta *txakur haundixa* (beste batzuk ziran txakur haundixak, baiña...), hamar zentimokuari esaten giñon.

Erriala, berritz, hogeta bost zentimokua zan, pezetian laurdena. Oingo eurua baiño pixkat haundixagua, eta erdixan zulua zaukan. Errial bikua, "cincuenta centimos", esan daigun.

Gero, hurrengo saltua, pezetara: bost pezetakua, hogeta bostekua, be-

rrrogeta hamarrekua (oingo hamar eurokua baiño handixagua, eta gorrixa izaten zan) eta hogeiturokua. Baiña horrek guretzako diru haundixak ziran, jakin daudela, bai, baiña...

Milla pezetako billeteak ere bazoen, baiña nik hamasei-hamazazpi urte nakazela igual 1.000 pezetakorik ez naban ikusiko, eh!

500 pezetakua, igual baten batek zakarren. (Pezeta batekotik aurrera, papelian. Gero etorri zan bost durokua txanponian.)



[GURE BERBAK]

Lau urtian / lau urtetan

Lokailuen atalarekin segituz, gaurkuan beste saill batekuak ekarriko dittugu hona: emendiozkuak esaten dio Euskaltzaindiak, zeozer gehitzeko, emendatzeko (eta ez *amatatzeko*, gero, eh!) balixo dabelako: *gaiñera*, *gaiñetik*, *behintzat*, *beñepeiñ*, *sikiera*, *ere*... Hona adibide batzuk:

- *Emakume ona topau zendun.* - *Bail Zuk ezagutuko dozu haura, gaiñera.*
- *Guardia Zibillak farolak ez dakit zer zaukala-ta multia gizajuari. "Gaiñera!", esango zaban harek. Kostau zitzakon, gaiñetik.*
- *Hemen pagau egin bihar juagu rondaren bat bada ere. Beti gorroneuan bestela.*
- *Zer begittentzen jatzu telebisioko euserkia?*
- *Diferentia, telebisioko asko beñepeiñ.*
- En jeneral, goiz partetik beñepeiñ, Euskadi irрати hori entzutzen degu, bai.*
- *Eskolan ibilli ziñaten zuek gaztetan? - Askok ez, ni behintzat.*
- Eske lehen, (medikuak) basari askotara ez zeben jun nahi izeten. Ta oin, sikiera, kotxia-kin juten zara, ta di-da ekarri.*
- Koziñeria ere zan Fuentarrabixakua, euskaldun jatorra.*

Jesus Mari Makazaga

BARREN astekarian

ZUZENDARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kazetaritzan lizentziatua.
- Lantalde bat zuzentzeko gaitasuna.
- Euskara maila ona.

Baloratuko da:

- Esperientzia sektorean.
- Informatika ezaupideak.

Eskaintzen da:

- Urtebeterako lan-kontratua.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: maiatzak 12.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Imanol) • E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

LOJANTZI ESKUBALOI TALDEA

LORPENIK HANDIENAREN ATARIAN

Sekula eskuratu duen lorpenik handienaren atarian dago Lojantzi, senior nesken eskubaloia taldea. Asteburu honetan (maiatzaren 6an eta 7an) igoera faseko bi partida jokatuko dituzte Iruñean, Aragoiko "La Jota" taldearen aurka aurrena, bihar 20:00etan, eta Iruñeko Itxako taldearen aurka bigarrena, domekan 12:00etan. Irabaziz gero, datorren urte Nazional mailan aritzeko eskubidea lortuko lukete. Lorpen hau, ordea, urte luzez egindako lanaren fruitua da; hainbat jokalaria, entrenatzaile eta pertsonari esker lortu baitute dauden tokiraino iristea. Eskubaloia talde jokoa izan arren, taldean urte gehien daramatzaten jokalariek: Irma Aldazabal, Ibana Loiola eta Ane Gamendia nabarmendu nahi izan ditugu eta lehengo eta oraingo kontuetaz berba egin dugu beraiekin.

Gazteak izan arren, taldeko jokalaria berteranoenak zarete.

Ibana: Bai, Irma da senior nesken mailan urte gehien egin dituen jokalaria, gutxiagatik bada ere; urte mordoxka daramatzagu elkarrekin jokatzen.

Irma: Halaxe da. Aurrez nesken senior talde bat egon zen, baina haiek laga zutenean, urte batzutan ez zen nagusien talderik egon. Nire belaunaldikoak izan ginen jubeniletatik seniorretara igotzen lehena. Koadrilakook osatzen genuen taldea, talde polita. Izan ere, infantil mailan, oraindik Ikastolan genbiltzala, Euskadiko Txapelketa eta Espainiako Txapelketako 5. postua eskuratu genituen. Orain ni naiz talde hartatik jarraitzen duen bakarra.

«Buruan dugun helburu bakarra mailaz igotzea da»

IRMA

Ane: Duela bi urte, berriz ere jende gabe geratu ginen. 10 jokalaria bakarrik gunden jarraitzeko prest eta ezin izan genuen talderik atera. Laupabost jokalaria bakarrik joaten ziren entrenamenduetara eta motibazioa eta ilusioa galdu ziren. Gauzak horrela, iaz mailarik baxuenetik ekin behar izan genion. Zorionez, txapelketa irabazi eta mailaz igotzea lortu genuen. Aurten ere liga txapelketa (Euskal Liga) irabazi

eta igoera fasean Nazional mailara igotzeko aukera izango dugu asteburu honetan Iruñean.

Urte hauetako jardunak laga dizuen oroitza on bat?

Ib.: Kadete mailako Espainiako txapelketako azken fasea jokatzerako Saloura joan ginenekoa.

Ir.: Kadete eta jubenil mailan Zumaiaiko "Pulpo" taldearen aurkako "pikeak".

A.: Ermuaren aurkako partida guztiak ere bereziak izan dira, "pike" gogorra izan dugu, jokatzeke duten moduagatik; nahiko zikina. Duela urte batzuk haginkada batekin itzuli zen gure taldeko jokalaria bat. Eta baita gure piztia beltzak izan direlako ere, beti bigarren postura sokoratzen gintuztelako. Aurten lagunarteko partida bat irabaztea lortu genien, eta urteko garaipenik onenaren pare ospatu genuela hirurok, us-te dut.

Bi urtez jarraian liga irabazi duzue. Zein da talde honen sekretua?

A.: Lagunartea. Oso ondo konpontzen gara elkarrekin eta jokoan igarri egiten da. Gazteenek 18 urte eta zaharrenek 26 izanagatik ez da adin ezberdintasunik nabaritzen. Entrenamenduetan deskonektatu eta parre batzuk egiten ditugu.

Ib.: Talde guztietan ez da horrelakorik ematen. Beste talde batzutan aritutako entrenatzaile batek aitortu zigun pertsonen kalitateari begirata gurea moduko talderik ez duela ezagutu. Kirol arloan beste kontu bat da: lagunekin denbora pasatzeko modu bat moduan ulertzen dugu-eta.

Zein dira Lojantzi taldearen doai aipagarrienak?

Ir.: Talde gaztea da, 6 jokalaria jubenil mailatik igotzea aurretik. Hori dela-eta joko

bizkorra egiten dugu, kontraeraso askokoa. Halere, talde osoa eta orekatua dugula uste dut; joko geldoan, estatikoan, ere moldatzen baikara. Ezaugarri askotariko jokalariek dauzkagu eta jokatzeke moduak ere halakoxeak dira.

«"Letxe" edo esne txar piskat falta zaio taldeari»

ANE

Eta zertan daukazue hobetu beharra?

Ib.: Partidutik partidura eta baita partida berean ere, gorabehera asko izaten ditugu.

A.: Erregularitasun falta zuzendu eta intentsitatea mantentzeko ahalegina egin beharra daukagu. Horrez gain, "letxe" edo esne txar pixka bat falta zaio taldeari. Gazteenek, batez ere, genio pixka bat falta zaie, momentu konkretu batzutan eduki behar den bizitasuna, txispa... Atera gehiago begiratu eta inizatiba gehiago izatea ere ez legoke gaizki. Jakina, esperientziak erakusten dituen gauzak dira horiek.

Zein da taldeko "arima"?

Ir.: Ane eta Ibana dira gainerako jokalarien erreferenteak eta hauek esandakoei kaso egiten diete besteek.

A.: Partiduetan berriz, asko eskertzen dira Sare eta Leire Apellanizen zaratak, animuak... Defentsa lanerako funtsezkoa da.

Zenbatean behin entrenatzen duzue?

Ir.: Arazo franko dauzkagu entrenamenduekin. Astean bi orduz erabili dezakegu kantxa, baina kantxa erdiarekin moldatu behar izaten dugu, eta horrela, oso zaila da kondiziotan entrenatzea. Kontraerasoak lantzea ezinezkoa da ia.

A.: Dauzkagun baliabide urriekin gauden lekura iritsi izanak nahikoa meritu dauka. Baloiak lortzeko ere arazoak ditugu batzuetan, pentsa! Eskubaloian jokatzeko urtean ordaindu behar dugun kuota ere lotagarria da, 120 euro!

Ba al dago adin muga bat emakumeak eskubaloian jokatzeari lagatzeko?

Ib.: Jubeniletatik senior maila rako jauzian dago lehen koska. Unibertsitatean ikasten hastearekin batera

«Partidutik partidura gorabehera asko ditugu»

IBANA

eskubaloia lagatzen dute askok. Ez lagatzeko konbentzitzen lan handia egin beharra dago askorekin.

Eta mailaz igotzea lortuko bazenute?

Ib.: Buruhauste bat litzateke klubarentzat. Gaur egun Sanlo klubak dituen diru baliabide eta laguntzekin ia ezinezkoa litzateke gastuei aurre egitea hurrunagoko taldeen aurka jokatzen baita Nazional mailan. Lortutako postua saltzea izan daiteke irtenbide bat, baina hori ikusteko dago.

Ir.: Gure asmo eta buruan dugun helburu bakarra mailaz igotzea da, ordea. Gero gerokoak.



Irma Aldazabal

26 urte

Ezker albokoa.
12 urte eskubaloian.
8 urte senior mailan.

Ibana Loiola

25 urte

Eskuin albokoa.
11 urte eskubaloian.
7 urte senior mailan.

Ane Garmendia

24 urte

Erdikoa.
10 urte eskubaloian.
6 urte senior mailan.

[PROTAGONISTA]



Gotzon Garate

Deustuko Unibertsitateak omenaldia egin dio Gotzon Garate irakasle eta idazle elgoibartari, duela 30 urte Euskal Filologia Ikasketak martxan jartzeko egindako lanagatik. Jesuita, marxista, euskalduna eta euskaltzalea dugu Gotzon Garate. Euskal Literaturan katedratikoa da eta marxismo irakaslea izan da Deustuko Unibertsitatean. 1955. urtean hasi zen euskaraz idazten. Harrezkero, hainbat artikulua, liburu, ipuin eta eleberririk argitaratu ditu. Bestalde, hainbat sari lortu ditu bere idatziekin, besteak beste, Txomin Agirre saria 1977an eta Azkue saria 1979an.

[NOTIZIA]

Plaza Txikian ospatuko dira aurten "Semana das letras Galegas" jaiak

Gaurtik hasita, domekara arte luzatuko dira galiziarren jaiak. Aurten goan, toki aldaketa izango da berrikuntzarik handiena; Urasanditik kalera jaitsiko dira galiziarrek eta Plaza Txikian ospatuko dituzte "Semana das letras Galegas" jaiak. Gumersindo Vila Galiza Etxeko presidentek azaldu duenez, "Urasandi heritik urrun gelditzen da, eta gure nahia, jaiak herritarrengana gerturatzea da".



Egitarau zabala

Manuel Lugris Freire idazlearen omenez ospatuko dira aurten jaiak. Gumersindo Vilaren esanetan, "aurreko urteetan baino egitarau zabalagoa antolatu dugu". Iluntzeko 19:30ean jaurlotuko da jaiari hasiera emango dien txupinazoa, eta une ho-

retatik aurrera, ekitaldi desberdinez beteriko asteburua izango dugu. Plaza Txikira hurbiltzen diren herritarrek folklorea, Galiziako produktu tipikoen dastaketa, musika, Queimada herrikoia, bazkaria eta beste hainbat ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute.

[ZENBAKIA]

10.538

2005. urtean 10.538 biztanle zituen Elgoibarrak. Azken urteotako joera beheranzkoa izan dela kontatu digute Udaletik, baina 2004tik 2005era 13 biztanleko gorakada txikia izan zen. Aurtengo daturik oraindik ez omen daukate, baina zifra ez dela asko aldatuko aurriztuen da.

[ARGAZKIA]



Aste Santu ostean ireki zuten Sigmako aparkamentuaren beheko pisua. Elgoibarko Udalak herriko aparkamentu arazoari irtenbidea aurkitu nahian eman duen lehengo pausua izan da. Polemika artean eraikitako aparkalekua dugu hau, bai kostuari dagokionez, eta baita kokapenari dagokionez ere. 45 auto inguru kabitzen dira beheko pisuan eta goikoan 43. Ez da gutxi, baina nahikoa izango ote da? Jendeak hartuko al du Sigman aparkatzeko ohitura? Momentuz behintzat, nahiko beteta aurkitu dugu Sigmako aparkalekua.

Bi izarretako hotela irekiko dute



Madalako errotondaren ondoan egiten ari diren etxebizitza berrian bi izarretako hotela irekiko dute urte amaiera alderako. Etxebizitzako lehenengo bi pisuak eta beheko solairua hartuko ditu hotelak. 22 gela izango ditu; 11 bikoitzak eta beste hainbeste logela bakarrak. Beheko solairuan harrera, kafe-tegia eta ekitaldi desberdinetarako gela bat egongo dira. Gela hau enpresen bilerak eta aurkezpenak egiteko edo kongresuetarako erabili ahal izango da. Hotelak lurrazpiko aparkalekua izango du bezeroentzako. Hotel berri honek bere sarrera

propioa eta igogailua izango ditu, gaintzeko etxibizitzetatik aparte.

Hotelaren beharra

Orain arte ostatu bakarra zegoen gure herrian; Txariduna. 1940. urtetik dago martxan, baina ez da zerbitzu nahikoa. Proiektuaren arduradunak dioenez, "Elgoibar industrigune garrantzitsua da, langile asko etortzen da egunero kanpotik lanera, komertzialak ere barra-barra ibiltzen dira euren produktuak saltzen eta sarritan lo egiteko toki bila inguruko herrietara joan behar izaten dute".

Gida baimenean galdutako puntuak berreskuratzeko zentroa jarriko dute Elgoibarren



Datorren uztailaren 1ean jarriko da martxan puntu bidezko gida baimena. Ordutik aurrera, trafiko legeak betetzen ez dituenari puntuak kenduko zaizkio, eta puntu guztiak galtzen dituenak ikastaro bereziak egin behariko ditu puntu horiek berreskuratzeko. Gipuzkoan bost zentro jarriko dira, eta horietako bat Elgoibarren egongo da. Ikastaroak gidari guztiarentzat berdinak izango dira, baina bakoitzari egokitutako saio konkretu batzuk ere eskainiko dira.

[MOTZ-MOTZIAN]

Arantza San Martin "Bai ala Ez" lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Arantza San Martin izan da BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Gabi jatearekin bi lagunentzako afaria irabazi du. Lehiaketan parte hartzeko, astero BARREneko Bai ala Ez atalean egiten dugun galderari bai ala ez erantzun behar zaio. Erantzunak SMS bidez, 7505 zenbakira bidali behar dira.



Begoña Errastiren hitzaldia

Begoña Errasti, Eusko Alkartasunako presidentea, hitzaldi bat eskainiko du bihar, maiatzak 6, eguerdiko 12:30ean, Elgoibarko Eusko Alkartasuna alderdi politikoa Jausoro Plazan duen egoitzan.



Bidezko Merkataritza

Maiatzaren 13an Bidezko Merkataritzaren Mundu Mailako Eguna dela eta, Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, Bidezko Merkataritzari buruzko erakusketa izango da Kultur Etxean. Hilaren 8tik 12ra egongo da ikusgai, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Bestalde, aurtengo jardunari amaiera emateko, maiatzaren 11tik 13ra Bidezko Merkataritzaren denda irekita egongo da, goizeko 10:00etatik 13:00etara Merkatu Plazan.

Zapatuetan Elgoibarren izaten den gazte giroaren erreportajea eman du ETBk.

ETBk erakutsi duen modukoak al dira Elgoibarko zapatu arratsaldeak?

ITSASO BASTARRIKA

Ikaslea
15 urte



“Ez, telebistan alderik txarre-na erakutsi dute. Jendeak drogak hartzen dituela egia da, baina hori beste edozein herrian ere gertatzen da. Denok ez gara horrela ibiltzen.”

RENATO BATISTA

Ikaslea
18 urte



“Apur bat exajeratu egin dute, baina droga asko ikusten da kalean zapatuetan. Gainera, kontsumitzaileak oso gazteak dira. Giro hori ez dut gustuko.”

NEREA LARIZ

Fisioterapeuta
39 urte



“Ez naiz zapatuetan kalean ibiltzen eta ez dakit. Etorkizunean gure umeak nola ibiliko diren pentsatzeak kezkatzen nau piskat, baina edukazioa etxean hasten da.”

ERNESTO LANDA

Ostalaria
38 urte



“Martxa handiko herria da Elgoibar. Drogak badaude, baina gainontzeko herrietan bezala. Alderik txarre-na atera da telebistan, gutxiengoa da honela ibiltzen dena..”

[BAI ala EZ?]

Izan al duzu kotxea gutxiago erabiltzeko burutaziorik?

BAI %22

“Bai, baten baino gehiagotan pentsatu dut kotxea gutxiago hartzea, baina momentuz, lehen beste erabiltzen dut. Hau ere tabakoaren antzerakoa izango da!”

EZ %78

“Ez. Xentimoka-xentimoka bikoiztu egin da gasolinaren prezioa. Adar-jotze galanta, baina kontsumitzaileen partetik ez dago protesta haundirik eta harrapauta gaude, ez dugu ihesbiderik.”


Datorren asterako...

Ondo iruditzen al zaizu oinezkoei ere multak jartzea?


BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala** hotelean. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com



Bizitzako une bakoitzak erabaki bat eskatzen du. Oraingoan, "bai, nahi dut" esateko erabakia hartzeko momentua da. Elizatik ezkontzea aukeratzen dute askok, eta gero eta gehiago dira, ezkontza zibilaren aldekoak. Bata zein bestea aukeratu, ezkontza eguna bikaina izateko hamaika detaile eduki behar dira kontuan. Gaurkoan, pausu garrantzitsu hau ematera doazeneztat hainbat aholku eta pista bildu ditugu gehigarri honetan.

06

EZKONTZAK

Andregai

Tendentzia berriak andregai-soinekoan

Egungo andregai-soinekoak betiko kolore, isats eta beloarekin apurtzen ari dira. Gero eta diseinu modemoagoak ikusten dira. Beharrezkoak ez diren apaingarriak eta beso luze edo motzak alde batera utziz, gero eta ohikoagoak dira tirante finak eta uhalik gabeko eskoteak.

Andregai-soinekoa aukeratzeko lanean ezkontza eguna baino bost edo sei hilabete lehenago hastea komeni da. Izan ere, norberaren gustukoa den soinekoa aurkitzeko denda asko begiratu behar izaten baitira. Gainera, norberaren gorputzera egokitzeko konponketak egiteko denbora luzea behar izaten da.

Azken urteotan beloa desagertzen ari da, gero eta gutxiago dira belo tradizionala aukeratzeko dutenak. Gaur egun mantilla edo enkajezko mantoiak eramaten dira gehiago. Ezkontza garaiaren arabera, gasak, tulak, seta, raso, mikadoak... erabiltzen dira soinekoa egiteko. Moda jarraitzea garrantzitsua da, baina batez ere, andregaiaren gustuak eta erosotasuna eduki behar dira kontuan.

Orokorrean, neska altu eta argalenzat soineko estua gomendatzen da; zabaltsun handiko gonak eta beso japoniarrak bular handia daukatenentzat eta neska txikiarentzat zimuturak eta tiro baxuko soinekoa.





• Ezkontza
• Ezkontzetarako gonbidapenak
• Bataio
• Lehen Jaunartze

Santiago Kalea, 14
AZPEITIA - Tel.: 899 325 839
www.oparion.com



LORADENDA

San Frantzisko, 24
Tel. 943 744 516



I'DOS edergintza

- "Diodo" laser depilazioa
Depilazio iraunkorrerako behin betiko sistema
- Dieta pertsonalizatuak elikaduran aditua den pertsonarekin.
- Aurpegiko tratamenduak elektrodonazio dinamikoarekin
Batzuk xiringa eraginkorra deitzen diote
- Aromaterapia produktua

Giza Eskubideen parkea, 1-6 **Tel.: 943 74 34 40**



AZALEA edergintza

Orain mikropigmentazioa
eta laser depilazioa ere
egiten dugu

Trenbide kalea, 3 - Tel. 943 74 03 10



JOSE ANTONIO ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 - Tel: 943 74 14 92



ELENA ileapaindegia depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89

ILEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 - Tel: 943 74 40 26

zurre eguna da

DONNA

Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza, 13
Tel. 943 74 43 88



NAHIA ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 14
Tel. 943 75 51 01 MENDARO



AGURTZANE

Ileapaindegia
Solariuma

Santa Ana, 18 - Tel. 943 74 18 64

Maria Urizar Ileapaindegia Solariuma

Errosario, 9-1 Tel. 943 74 44 89

Amagoia ileapaindegia

Tel: 943 03 38 35
Mendarozabal, 4 behea
MENDARO



Judith Edergintza

San Frantzisko, 2
(FARMAPRAIZ)
Tel: 667 74 21 18

Tximak ILEAPAINDEGIA solariuma

Kalamua, 2 - Tel: 943 74 43 57

Senargaia

Senargaiaren dotoretasuna



Senargaia bigarren planoan gelditzen da ezkontzetan. Hala da eta hala onartu behar dugu. Begirada guztiak andregaiari zuzentzen zaizkio, bera da protagonista nagusia. Hala ere, ez da deskuido txikiena ere eduki behar senargaiaren janzkeran. Egia da, bestalde, senargaiaren trajeak ez duela hainbeste aukera eskaintzen, andregaiare-




na baino askoz murriztuagoa da, baina ezkontzak eskatzen duen dotoretasun maila eman behar du.

Trajea aukeratzeko gauza asko eduki behar dira kontuan: andregaiaren soinekoa, ezkontza mota, lekua, gonbidatu kopurua, norberaren gustuak...Txaketa eta frak-a arratsaldez diren ezkontzetan bakarrik erabili behar dira.

Ezkontza simplea bada, egunez edo informala, traje klasikoa gomendatzen da; gorbatarekin edo dotoretasun ukitua emango dion beste zerbaitekin, adibidez, kolorezko gerriko dotore batekin. Kolore gomendagarrienak urdin iluna, urdin-beltza eta gris iluna dira.

Udaberriko ezkontzetarako modan daude kamel koloreko trajeak, beixak, gris argiak eta konbinazio informalak. Papar-hegalak gero eta txikiagoak dira eta gerrira gero eta nabariagoak.

Emakume, gizon eta haur erropak



**Zure bizitzako
une bakoitzerako
egokituak**

Tel.: 943 85 07 36
Julio Urkijo, 24
AZKOITIA

Etoz eta ikus!

Imprenta Arrillaga

Imprenta: Offset Digitalen	Ekintza garbiderak Hileta orriarik Bleku-tarrietan Kartelak - diktak e.a.	Fotokopiak	Hakurketa Txan-baltzaan
-------------------------------	---	------------	----------------------------

Trenbide Kalea, 13 - behea, - 29 Posto Kutxatila 20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 74 01 87 - Faxa: 943 53 13 54 - Mugikorra: 677 42 55 60
e postak: arrillagazs@euskalnet.net



DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.:943 74 40 58
• Faxa: 943 74 41 78 • debape@telefonica.net




Joseba
JATETXEA
FLOREAGA Jauregia

Aizkibel, 10 AZKOTIA
Tel. 943 85 34 12
www.josebajatetxea.com

*Euskal arkitekturako eraikin
nagusienetakoan,
ezkontzak berezia
izan behar duelako*



*XVI. mendeko
jauregi gotikoan
paregabeko paisaia
batean,
gaur egungo joerei
erreparatzen dien
kalitatezko
euskal sukaldaritza
klasikoaz gozatzeko auke-
ra ematen dute*



**250 lagunentzako jantokia,
ospakizun handietarako aproposa.
Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzako bata,
eta bestea erreserbatua, 20 lagunentzat.
Luntx-erako terraza aproposa.**




JATETXEA

Loiolako Inazio
Hiribidea, 47
20730 AZPEITIA

Tel: 943 15 16 16

Faxa: 943 15 16 18

www.adegi.es/hotelloiola





Krabelin
HOTELA - JATETXEA

☎ 943 202 727 • FAXA 943 208 991
Arrate auzoa, z/g • 20600 EIBAR (Gipuzkoa)



2 Suite jakuziarekin
4 Gela hidromasajearekin
Gela 1 elbarrituentzat egokituta

WI-FI doan eraikuntza osoan

250 pertsonentzako aretoa
Era guztietako ospakizunak

Gela bikoitza (denboraldi ertaina) 60 €
Eguneko menua 17 €
Karta 30-36 €



DENBORALDIKO SUKALDEA

Jon Odriozolak zuzendua
Berezitasunak:
GARAICO EHIZA



Ezkontza

planifikatu hilabetez hilabete

Denok egiten dugu amets ezkontza perfektuarekin, eta dena ondo atezteko, denboraz hasi behar gara antolatzen. Ezkontzak ez zaitzala miseria utzi! Dirua aurrezteko estrategia bat prestatu behar da, ezkontzak egunetik egunera garestitzen dira eta oso garrantzitsua da ondo planifikatzea. Lehenengo gauza beraz, aurrekontua prestatzea izango da, eta gero dirua aurreztea. Oso gomendagarria izaten da ezkondu diren bikoteekin hitz egitea eta euren esperientzia ezagutzea. Gaurkoan, detaile guztiak garaz prestatzeko zenbait aholku emango dizkizugu.

Urtebete lehenago

Ezer baino lehen, ezkontza data zehaztu behar da. Data zehaztu ostean, eliza eta erregistro zibilerako en-

kargua egitea komeni da. Zein mota-tako ezkontza izango den zehaztu behar da, leku posibleak zerrendatu... Bestalde, testiguak eta aitabitxi eta amabitxiak zein izango diren erabaki eta beraiei esan behar zaie.



9 hilabete lehenago

Ezkontzaren aurrekontua egin eta bakoitzak zer ordainduko duen zehaztu behar da. Jatetxea aukeratu eta erreserbatzea komeni da. Aurrekontuaren arabera, gonbidatuen zerrenda egin behar da, eta behin eta berriz ondo errepasatu, inor ez ahazteko.

6 hilabete lehenago

Ezkon soinekoa aukeratzeko lanari ekin behar zaio. Lehenengo erosi edo alokatu egingo dugun erabaki behar da eta ondoren, denda desberdinak begiratzen hasi. Jatetxearen dekorazioa zehaztu, DJ-a aukeratu, argazki eta bideo erreportajea egingo digun persona lotu eta catering-a zehaztu. Eztei-bidaia egiteko leku posibleak aukeratu.

**LASA
JATETXEA**

*Luxuzko eskaintza
poltsiko guxtien eskura*

**LASA Jatetxean,
ezkontzaren unea
sekula ahaz ez
dezazun eta zure
bizitzako oroigarri
ahaztezina izan dadin
lan egiten dugu.**

Ozaeta Jauregia • Tel: 943 76 10 55 • Web: restaurantelasa.com • BERGARA

4 hilabete lehenago

Opari zerrenda egin eta opari horiek erosteko dendak aukeratu. Eztei bidaiara nora egingo den erabaki eta bidaiara egiteko beharrezkoa den guttira lotu. Senargaiaren trajea erreserbatu eta andregaiaren soinekoa nola doan ikusi.

2 hilabete lehenago

Andregaiaren ileapaindegia erabaki, makillajea eta proba bat egiteko zita hartu. Eratzunak enkargatu. Senargaiaren trajea erosi. Zapatak aukeratu. Eztei bidaiarako beharrezkoa den dokumentazio guztia errebisatu, azken momentuko sustorik ez edukitzeko (pasaporte, bidai aseguru, visa txartela...). Ezkontza gauerako hotela erreserbatu. Gonbidapenak bidali.



Hilabete lehenago

Eratzunak bitxidendatik jaso behar dira. Makillaje eta orrazkeraren proba egin ileapaindegian eta soinekoaren

azken proba. Gonbidapenen bat ematea falta bada, horiek banatu.

Bi aste lehenago

Eztei bidaiaren erreserba eta detaile guztiak konfirmatu behar dira. Ezkontza egunerako kontratatutako zerbitzu guztiak errepasatu eta zerbitzu falta den ikusi.

Astebete lehenago

Ileapaindegirako ordua eta gonbidatuen presentzia konfirmatu. Ezkontza eguneko hoteleko erreserba konfirmatzea komeni da.

Ezkontza egunean

Ileapaindegiko detaile guztiak kontuan hartu ezer ez ahazteko. Eta garrantzitsuenak, lasaitu, eguna borobil ateratzeko ezinbestekoa da lasaitzea.

ARAMBURU
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

943 744 451
Santze Ina, 44
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

943 603 194
Jose M. A. ZIARR: 5 - II. Blokea
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

ARHOPE  **NAVA**
INPRIMATEGIAK

Eztei-bidaia

Nora joan nahi dute bikoteek?

Nora egingo dugu eztei bidaia? Hauxe da bikote batek ezkontzea erabakitzen duen unean sortzen den galderetako bat. Bikotekideen gustuak kontuan izanik, aukerak anitzak dira: hondartza, ibilbide kultural bat edo bien arteko nahasketa.

Tokia aukeratu aurretik, edozein ezbeharren aurrean laguntza eskainiko dizun bidai agentzia bat aukeratu behar da. Eztei-bidaia denborarekin antolatu behar da. Merkatuko eskaintza guztiak begiratu eta zein motatako bidaia egin nahi den bikotearekin erabaki: hondartza, eskia, itsaso-bidaia, bidai kulturala etab. Erreserba lehen bailehen egitea komeni da, beti ere, bidai agentziaren gomendioak jarraituz.


Eztei bidaia antolatzerakoan hainbat gauza eduki behar dira kontuan, esate baterako: bidaia egiteko garaia eta herrialde horretara sartzeko bisatua beharrezkoa den. Bestalde, herrialde exotikoren batera joatea erabakiz gero, botika edo txerto berezirik behar den kontutan hartu behar da, eztei-bidaia ohean gaixo pasatzea ez da eta oso atsegina.

Tokiari buruz, gaur egun munduko edozein lekutara joateko moduan



gaude, lekua, gustuak eta, batez ere, aurrekontuak finkatzen dute-eta. Gogoratu beharreko beste gauza bat bidaiariaren segurtasuna da.

Ezkon berriek irlak izan ohi dituzte gustukoen: irla greziarrak, Santo Domingo, Kuba, Fiji edo Mexikoko Isla Mujeres esaterako. Ezkontza neguan ospatzen bada, eski bidai bat oso aukera ona izan daiteke baina, zure aurrekontua murrizta bada, Kanariar uharteek eguraldi ona bematzen dute urte osoan zehar.





Garbiñe
Estetika

Zatoz eta prestatuko zaitugu!

P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32

- AURPEGIKO TRATAMENDUAK**
 - Aurpegiko azala garbitzea
 - Kateobitala
 - Hidratazioa
 - Erregenerazioa
 - Lifting-a
 - Zimurren aurkakoa
 - Makillajea
 - Betile eta bekatnak tindatzea
- GORPUTZEKO TRATAMENDUAK**
 - Zelulitsaren aurkakoa
 - Tinkolzailea
 - Erdilze-ostekoa
 - Algak eta buztina
 - Manikura eta pedikura
- DEPILAZIOAK**
- SOLARIUMA**

fadek

Orain alopezia eta beste zenbait arazoai aurre egiteko profesiak, peluka naturalak eta erdi naturalak ditugu!
Eskatu informazioa konpromezurik gabe!

erosario 31
943 74 26 92



KIRURI
JATETXEA

Loiola Hiribidea, 24
LOIOLA - AZPETAIA
Tel.: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62

Ezkonberrientzako eskaintza berezia



2x1

Erosi eztei-bidaia 1 eta eraman 2

Orain, zure eztei-bidaia erosten baduzu **EROSKI**/bidaien "Ezkonberrientzako eskaintza berezia" kanpainan, **ERABAT DOAN** oparituko dizugu...

bidaiak bat **Paris**era

Informatu eskaintzaren baldintzei buruz gure bulegoetan



San Bartolome, 11
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 656
Faxa: 943 742 273
E-posta: v0610@viajeseroski.es

 **EROSKI** / bidaiak

merezi duzu



Kantabria Jatetxea



ARRATEko
santutegiaren
ondoan aurkitzen
gara

Arrate Auzoa, 4
20600 Elbar-Arrate
Tel. 943 12 12 62



*Edozein
motako
ospakizunetarako
aukera*



*enpresa bazkariak,
karta, ezkontzak,
zilarrezko ezkontzak,
urrezko ezkontzak,
batuioak, jaunurtzeak...*



ostarku

PROFESIONALAK

Ez itxaron gehiago!
Eska ezazu zure ezkontzako erreportajea.



ARGAZKI-ERREPORTAJEAK

Santa Ana, 5 · Tel. 943 74 06 46

maiatzaren

11tik aurrera

berria berria = berria²

KAZETA eredu Berria

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

GUREAN ULERTUKO DUZU

AUKERA ezazu, BIZI euskaraz **berria**

MENDAROKO OSPITALA HANDITZEKO LANAK

Larrialdi gunea handitzeko laguntzak emango ditu Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuak 500 milioi euro inbertituko ditu 2009. urtera bitartean Osakidetza sarea hobetzeko. Horien artean, Mendaroko Ospitaleko larrialdi gunea hobetzea da Jaurlaritzaren helburua.

80.000 lagunentzako ospitala

Debabarrenako biztanleez gain, Azkoiti eta Ondarrutik ere jende asko etorzen da. Azken bost urteotan %22an gehitu da ingreso kopurua. Joan zen otsailean, 14 ohe berri ekarri zituzten ospitalera eta handitze lan batzuk ere egin ziren; 200m²

gehitu zitzaizkion egungo eraikuntzari. Gabriel Inclan Jaurlaritzako Osasun Kontseilariak esan zuenez, "50ean jaitsiko da beste ospitaletara bidaltzen den gaixo kopurua". Mendaroko Ospitalak 80.000 laguni eskaintzen die zerbitzua. 1992an inauguratu zen Mendaroko Ospitala, eta eskaintza zabala dauka: 26 medikuntza espezialitate eskaintzen dira, 4 kirolfano eta bi erditze gela dauzka, Eguneko Ebakuntzen gela eta proba berezi ugari (TAC, ekokardiografiak...). Iaz 5.800 ingreso izan ziren, 133.000 kontsulta, 30.000 larrialdi, 4.000 ebakuntza eta 600 erditze inguru.



Kirol federaturako bekak

Mendaroko Udalak langabetu, ikasle, jubilatue eta familia ugarietako kideei 2006. urteko Kirol Federaturako inskripzio kuota ordaintzeko bekak emango ditu. Interesatuak ekainaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dute ordainketen eta norberaren egoeraren ziurtagiria udaletxean.

Kamioi handiek ezingo dute herri barruan aparkatu

3.500 kilo baino gehiago pisatzen duten kamioiek ezingo dute herri barruan aparkatu. Aurrerantzean, herri-gunetik kanpora dauden ingustrigunetan aparkatu beharko dute.

Kartelak jartzeko panelak

Azkenaldian kartel kopurua asko handitu da eta hormak zikintzeaz gain, asko lurrera erortzen dira. Herria garbiago mantentzeko, Udalak kartelak jartzeko panelak ipiniko ditu herriko hainbat gunetan.

Mendaroko KZgunea

KZguneak hainbat mintegi antolatu ditu maiatzerako. "Zure liburua aurkitu", "posta elektronikoa bidez komunikatu" eta "zure egunkaria irakurri. Informazioa 943799444 telefonoan.

Asteburuan amaituko da Euskal Kultura Astea



Asteazkenean hasi zen Mendaroko Euskal Kultura Astea, etxeko txikienen artean euskal kulturaren historia apur bat zabaltzeko asmoz. Euskal mitologia, leiendak eta ohiturak ezagutarazteko ekitaldiak asteburuan amaituko dira. Bihar, gaztelu puzgarriak, ludoteka eta haurrentzako tailerrak izango dira Herriko Enparantzan, 17:30etik aurrera eta domekan "Cantervilleko mamua" izeneko antzerkia izango da ikusgai Udaltzatza aretoan (17:30).



Plaza berriari izen berria

Linazasoro kalea eta Herriko Enparantza artean plaza berri bat izango da laister. Udalak, Ormaetxe Plaza izena proposatu du, garai batean ingurune honetan zegoen baserriaren oroimenez. Hala ere, Mendaroko Udalak herritarren iritzia jaso nahi ditu eta euren proposamenak egiteko deialdia luzatu du. Proposamen guztiak jaso ostean, Hirigintza Sailak hartuko du erabakia.





BEÑAT URAIN

Txirindularia

«Ilusio handia egingo lidake etxean Euskadiko txapela janzteak»

Laxy taldean ari den Beñat Urain (18 urte) txirindulari mendaroarra jubenil mailan nabarmentzen ari da. Iaz, jubenil mailako lehen urtean, 3 lasterketa irabazi zituen: Mutrikun, Tolosan eta Mendaron. Eta aurten, oraingoz, Zarautzeko Udaberri Saria irabazi du, baina erronka handiak ditu datozen hilabeteotan.

Garaipen garrantzitsuak lortu dituzu jubenil mailan.

Iaz, 3 lortu nituen, eta ez da batere erraza jubenil mailako lehen urtean. Berezi-ena etxean, Mendaron lortu nuena izan zen, ordea. Euskadiko Txapelketan ere txapeldunorde izatea lortu nuen. Aurten go denboraldia ez da txarto hasi; Zarautzeko Udaberri Saria irabazteaz gainera, Debakoan bigarren egin nuen. Ion Lazkano mendaroarekin batera iritsi nintzen helmugara eta berak irabaztea adostu genuen. Amaiera polita izan zen. Tolosan Gipuzkoako Klasikan ere parte hartu dut Euskadiko selekzioarekin eta seigarren postuan sailkatu nintzen. Espainia mailako txirindulariek parte hartu zuten proba honetan.

Zein dira aurtengo helburuak?

Bi helburu nagusi ditut. Batetik, Gipuzkoako Itzulirako sasoi betean egotea gustatuko litzaidake ekain bukaeran. Kronoigoe-rra bat eta 3 etapa izango dira. Talde indartsurik gabe, baina, irabaztea oso zaila izango da. Talde lanik ezean, ezin dira lasterketak kontrolatu eta ihesaldiak helmugaraino iristen dira askotan. Umetatik Mutrikuko Laxy taldean ari naiz, baina une honetan bi kide bakarrik gaude. Itzulietan parte hartzeko beste talde batera elkartzen gara. Aurtengo bigarren helburu nagusia Mendaroko lasterketa irabaztea izango da, Euskadiko txapelduna era-

bakiko baita bertan. Ilusio handia egingo lidake etxean Euskadiko txapela janzteak.

Zein da irabazteko modurik politena?

Mutrikun irabazi nuen moduan; Kalbarioa igotzen ihes egin, helmugara talde txiki batean iritsi eta sprintean irabazi.

Maila handia al dago jubeniletan?

Bai. Gipuzkoan inguruko mailarik onena dagoela uste dut.

Zenbatean behin entrenatzen duzu?

Egunero, deskantsurik gabe. Egun baten 3 ordu, hurrenguan bi, bat... Urtean 10.000 kilometro inguru ateratzen zaizkit. Probak egiten dizkigute gure gaitasuna zehazteko eta horren arabera prestatzen ditugu entrenamenduak. Norberaren ezaugarrien arabera kilometro gutxiago edo gehiagorekin moldatzen gara.

Zer doai dituzu txirindulari gisa?

Igotzaila naiz, ibilbide aldapatsuetan moldatzen naiz hobekien. Etapa lauetan ere, ez naiz gaizki moldatzen. Erlojuz kontrakoak apenas egiten ditugun.

Nork irabaziko du Frantziako Tourra?

Basso edo Valverde ikusten ditut faborito.

Ikusten al duzu zure burua Tourrean parte hartzen?

Zaila da, urrunegi dago begiratzeko ere. Urte batean ondo ibil zaitezke, aurrean, baina hurrengoan beharbada ez. Afizionatutako 3. urtea, 22-23 urterekin da erabakiorra, arre edo so egin daitekeen jakiteko.




«Talde lanik gabe zaila da lasterketak irabaztea»



IKUSKIZUNAK

"Otehitzari biraka" ikuskizuna maiatzaren 12an Herriko Antzokian



Tantaka Teatroak eta Kukai Dantza konpainiak erronka handi eta erakargarriari ekin diote. Izan ere, Jorge Oteiza oinarri izango duen koprodukzioa sortu dute. "Otehitzari biraka" ikuskizuna datorren barixakuan, maiatzaren 12an, iritsiko da Herriko Antzokira (22:15). Oteizaren izena aipatzea bada osagarri nahiko indartsua. Orion jaiotako artista ez da inoiz oharkabean igaro, eta azken-azkenara arte eman zuen zeresana. Eskulturaren, poesiararen, filologiaren, antropologiaren... bizitzaren Oteiza bizitzaren aurrean jorratu zituen ikuspuntuak eta azaldutako iritziak erakutsiko dira taula gainean. Nolanahi ere, Oteiza bera ez da ikuskizuna-

ren osagarri bakarra. Bere obra sakon aztertu ondoren Mireia Gabi-londo arduratu da ikuskizunaren gidioiaz eta zuzendaritzaz, Jon Ma-yak sortu du koreografia, Mikel Ur-dangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda arduratu dira musikaz eta kolaborazio zerrenda luzea bil-du da proiektura: Mikel Laboa, Iñaki Salvador, Pello Zabala, Xabier Le-te... Dantza, musika, poesia, bide-oa... izango ditu ikuskizunak. Baina, batez ere, Jorge Oteizaren hitzak eta espiritua. Sarrerak aurrez eros daitezke: goizez Kultura Sailean; arratsaldean, Gazte Informazio Bule-goan, martitzenetik barikura, 16:00etatik 19:00etara (Kultur Etxe-ko 2. pisuan).

Arduradun eta ordutegi berria Biluzik Sexologia Zerbitzuan

Eider Goiburu izango da Biluzik Sexologia Zerbitzuko arduradun berria hemendik aurrera. Eider Arzellus bergararraren lekua hartuko du Eider Goiburuk. Arduradunaz gain, ordutegi berria izango du zerbitzuak: asteazkene-tan 17:00etatik 20:00etara.

Gazte Informazio Gunea

Honekin batera Gazte Informazio Gunea (GIG) ere ordutegi berria izango du aurrerantzean: astelehen, martitzen, eguen eta barixakuetan 16:00etatik 19:00etara, alegia.

Tanborradarako entseguak

Joan zen astean hasi ziren Trinitate Jaietako nagusien tanborradarako entseguak. Tanborradako batzordeak jakinarazi duenez, maiatzaren 11n, 18an, 23an, 25ean eta 30ean eta ekainaren 1ean, 6an eta 8an izango dira hurrengo prestaketa saioak. Entse-gu guztiak gaueko 21:30etan izango dira Merkatu Plazako azken solairuan.

la 500 lan aurkeztu dira Liburutegiko Idazlan eta Marrazki Lehiaketara



Liburuaren Nazioarteko Eguneke ospakizunekin bat eginez, XII. Idazlan eta Marrazki Lehiaketako sari banaketa egin zuen Udal Liburutegiak, ohitura dutenez, liburutegiko atarian. Guztira 439 lan aurkeztu dira aurtengo edizioan; 312 marrazki eta 127 idazlan. "Gure erreka bizirik nahi dugu" gaiaren inguruan jasotako marrazki eta idazlanek argi laga dute gure neska-mutilak

kezkaturata daudela Deba ibaiaren garbitasunaz. Ia kontzientzia ekologiko hori beraiekin batera hazten den eta urte batzuren buruan horrelako gaiak beharrezkoak ez diren, kutsatu gabeko erreka dauzkagulako. Argazkian sarrituak ageri dira, jasotako sari sortarekin. Sarrituez gain, hainbat neska-mutil, guraso eta kurioso hurbildu ziren ikusmiran.

AZKOITIKO RALLYSPRINTA

5.000 lagunek jarraitu zuten Azkoitiko Rallysprinta Azkarateko errepide zaharrean



Rallysprinten astea izango da honakoa Elgoibarren; joan zen zapatuan Azkoitiko Rallysprinta jokatu zen Azkarateko errepide zaharrean, eta bihar, San Migelgoaren txanda izango da. Azkaraten Santi Artetxe eta bere Peugeot 307 WRCa (World Rally Car) ziren faborito argiak, eta pronostiko guztiak betez, denborarik onenak lortu zituen 3 txandetan. Zerbaitegatik dela Euskadiko Rallysprint Txapelketako liderra frogatu zuten Mañariako pilotuak. Joseba Za-

pian (Seat Ibiza) sailkatu zen bigarren postuan. Nabarmentzekoa, ordea, errepide bazterretan batu zen ikusle kopurua izan zen, 5.000 lagun, lagun Artea antolatzailearen esanetan. Motor munduak zaletu asko erakartzen dituela zalantzarik ez dago. Zapatu honetan izango da baieztaipen hau egiaztatzeko aukera Etxeberria eta Santa Klara arteko errepidean jokatu den IV. San Migelgo Rallysprintean. 15:00etan hasiko da.

Elgoibar 3 Lazkao 0 Herriarteko Txapelketaren joaneko partidari



Hirutik hiru. Pilotari elgoibartarrek Herriarteko Txapelketara itzulera ezin hobe egin zuten joan zen barixakuan. Lazkaotarrak izan zituzten aurkari eta hiru mailatako partidak irabazi zituzten. Arribillagak eta Lizarralde 22 eta 1 egurtu zuten kadete mailako bikote lazkaotarra eta Arrizabalaga eta Txurrukak erraz irabazi zuten jubenil mailako puntua, 22 eta 9. Lazkaotarren nagusiek erresistentzia gehiago erakutsi zuten arren, 22 eta 16 irabazi zuten partida Iriondo eta Loiolak. Gaur, hilak 5, jokatuko dira itzulerako partidak Lazkaon.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Indautxu 1 - Haundi 2 (3. maila)
 Elgoibar 0 - Amara Berri 1 (1. erreg.)
 Elgoibar 0 - Getxo 2 (Jub.)
 Elgoibar 0 - Martutene 1 (Kad.)
 Elgoibar 0 - Aloña Mendi 2 (Neskak)
 Elgoibar 6 - Lagun Onak 2 (Inf A)
 Elgoibar 3 - Bergara 7 (Neskak F-8)
 Hemani 6 - Elgoibar 0 (Inf. B)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Elgoibar (Ari./Liz.) 22 - Lazkao 1 (Kad.)
 Elgoibar (Arriz./Txu.) 22 - Lazkao 9 (Jub.)
 Elgoibar (Iri./Loiola) 22 - Lazkao 16 (Nag.)

Debaroko Txapelketa

lagunak (Ula./Iri.) 19 - Arrasateko 22 (Nag.)
 lagunak (Portu./Arriz.) 13 - Olalde 22 (Jub.)
 lagunak (Liz./Sal.) 22 - Bergara 7 (Kad.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 6
 16:30 Haundi - Beasain (3. maila)
 Domikia, 7
 11:00 Alebin - Elgoibar (Inf. B)
 Eguaztana, 10
 18:30 Elgoibar - Indartsu (Jub.)

ESKUBALOA Kiroldegian

Zapata, 6
 11:00 Inf. neskak - Aterpe Olasa (Inf. Nesk.)
 17:30 Tecnomeca - Groseko (Kad. Mut.)
 19:00 Tecnifuelle - Arrate (Senior Mut.)
 Domikia, 7
 10:30 Cometel - Zarautz (Jub. Neskak)

Unai Elorza irabazle Soraluzeko Bolo Txapelketan

San Migel taldeko Unai Elorza elgoibartarrak irabazi zuen Soraluzeko Txurrukako bolatokian jokatu zen Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren 4. jaurtialdia. Guztira 63 bolarik parte hartu zuten eta Unai 8 txirlo botatzea lortu zuen. Josu Lizarralde azkoitiarra sailkatu zen 2. postuan. Hurrengo jaurtialdia Asola Berriko (Eibar) bolatokian izango da maiatzaren 6an (17:00).

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berriua. 168.200 euro (28 milioi pezeta). **943 74 84 48/636 57 11 11**
- ▶ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, 2 komun eta egongela. **630 28 63 63**
- ▶ Etxea salgai Sigman. 2 logela, sukalde-jangela, barra amerikarra, sala, komuna. Berriua, berogailua eta altzariek. **676 94 57 82**
- ▶ Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukalea jantzita, su bajua, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. **670 251 263**
- ▶ Pisua salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. 3 logela, sukalde-jangela, 2 komun, egongela, garajea eta ganbara. **659 80 10 32**
- ▶ Pisua salgai Errosario kalean. 2 logela, egongela, sukalea eta komuna. 135.230 euro. Adosteko. **646 75 80 91**

- ▶ Pisua salgai Bernardo Ezenaro kalean. 2 logela, garajea eta trasteroa. Berria. Prezio interesgarria. **606 71 56 77**
- ▶ Pisua salgai Mendaron. 3 logela, egongela handia, sotoa, atikoa, bi komun. 217m². Guztiz berriua. **609 888 653**

ALOKAIRUA

- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan. **638 716 987**
- ▶ Logela bat hartuko nuke alokairuan. **697 78 52 78**
- ▶ Pisua alokatzen da Pedro Muguruzan. **650 80 91 90**
- ▶ Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua. 2 logela. **943 20 30 83**
- ▶ Etxea alokatzen da Pedro Muguruzan. **636 27 72 82 (18:00-21:00)**
- ▶ Etxebizitza alokatzen dut Torreveijan. Hondartzatik 200 metrora. Aste Santu eta udarako. **615 70 71 38**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Aterpe behean. **695753699**
- ▶ Garaje marraduna salgai Leku Ederren. **639 05 14 45**
- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Pedro Muguruzan 11n. **943531648/669916148**
- ▶ Garaje itxia salgai Leku Ederren. 24.000 euro. **678 80 35 35**

[AUTOAK]

- ▶ Ford Focus autoa salgai. TDCI, 115 zaldi, 2003koa. Xenon, TCS, Bristein suspentsioa, 76.000km. **630 946 241**
- ▶ Motorra salgai. Piaggio x8 beltza. Extrak. 9.000km. Beti garajejan. **678 80 35 35**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Hozkailua eta berogailua salgai. Egoera onean. **695 711 836**
- ▶ Martxan dagoen janari denda saltzen da San Bartolome kalean. **943 74 12 26**
- ▶ Erabilitako furgoneta erosiko nuke. **676 929 453**
- ▶ Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilteraz. 10km/orduko. Gurpil sendoak. Irailgaitza. Prezioa adosteko. **635 73 58 15**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Bi neska lanerako prest: umeak zaindu, garbiketa lanak... **609 965 932/943 53 18 35**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **639 020 180**
- Neska umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. **626 57 17 07**
- Emakumea orduka erropak plantxatzen lan egiteko prest. **943 03 36 05**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. **943 03 36 05**
- Bi mutil lanerako prest: igeltsero, nagusiak zainduz, kamarero moduan, bserriko lanak... **615 00 83 46**
- Neska lanerako prest. **666 814 916**
- Neska nagusiak zaindu, garbiketa edo kamarero lanak egiteko prest. **667 709 439**
- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako klase partikularrik ematen dira. **943 53 10 54**

- Emakumea lanerako prest: umeak edo nagusiak zainduz, etxeko lanak eginez... **686 578 228**
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan, igeltseritan, lorezaintzan... **636 762 822 /943 53 18 35**

ESKAINITZA

- Umea zaintzeko emakumea behar da. Kotxea beharrezkoa. **652 71 65 64**
- Mutil gaztea behar da. Igeltseroa edo 1. edo 2. mailako ofiziala. **605 70 52 04**
- Esperientziadun sukaldaria behar da asteburuetarako. **615 72 34 80**
- Esperientziadun kamareroa behar da. **615 72 34 80**
- Kamareroa eta sukaldariko laguntzailea behar da. Asteburuetarako. **943 12 12 62**
- Egun erdiz lan egiteko kamareroa behar da. Utzi mezua ondorengo zenbakian: **695736799**
- Eibarko enpresa baterako muntatzaile mekanikoa behar da. LH mekanika arloan eta ingelesa menperatzea eskatzen da.

CV. Eibarko 263 postakutxatilara bidali.

- Tabernarako kamareroa behar da. **615 76 14 63**



- Mutrikoko enpresak **arotza** behar du. Erref. 162006005281
- Debako enpresak **CNC tomurako programatzailea** behar du. Erref. 162006004381
- Gipuzkoako enpresak **inkestatzailek** behar ditu. Erref. 162006004849
- Mendaroko enpresak **arotza** behar du. Erref. 162006004945
- Azkoitiko enpresak **muntatzaile mekanikoa** behar du. Erref. 162006005165
- Mendaroko enpresak **pintorea** behar du. Erref. 162006004946
- Gipuzkoako enpresak **CNC tornurako irakaslea** behar du. Erref. 162006005272
- Arasateko enpresak **elektrikaria** behar du. Erref. 162005011859

- Oñatiko enpresak **iturgin laguntzailea** behar du. Erref. 162005013146
- Azpeitiko enpresak **metalurgia-industriako peoia** behar du. Erref. 162006004961
- Arrasateko enpresak **gasolinde-girako langilea** behar du. Erref. 162006005391
- Azpeitiko enpresak **elektrizitateko ingeniaria** behar du. Erref. 162006005352
- Arrasateko enpresak **informatika teknikaria** behar du. Erref. 162006005129

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: **IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

- Urrezko pultsera galdu nuen apirilaren 20an. Kolore desberdinak ditu: berdea, marroia... **943 74 38 99**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **June** hilaren 11n 4 urte egingo dituzulako. Luken eta familiakoen partez, muxu handi bat.



▶ Zorionak **Garazi** hilaren 3an 2 urte egin zenituelako. Ondo pasa domekan! Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Garai** Ondo pasa zure urtebetetzean. Familiakoen eta gelakoen partez.



▶ Zorionak **Iker** zure 4. urtebetetzean. Muxu potolo bat denon partez.



▶ Bihar egun handia! Zorionak **Potxolil**



▶ Zorionak **Ezizen** bi urte egin dituzulako. Izeko Itxaso eta osaba Robertoren partez.



▶ Zorionak **Maialen** atzo 12 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



▶ Ongi-etorri **Maddit** Oso pozik gaude zu hemen zaudelako. Muxu asko Maialen eta Inigoren partez.



▶ Zorionak **Iker** 4 urte egin dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, anaia Julenen partez.



▶ Zorionak **Beñat** bihar urteko bat egingo duzulako. Segi beti bezain potxolo. Muxu handi bat Joana eta Itxasoren partez. Mutikote!



▶ Zorionak **Issbel** zure urtebetetzean. Guraoen, osaba-izeben eta aitona-amonen partez. Muxu handi bat.



▶ Zorionak **Nahia** maiatzaren 9an urteak egingo dituzulako. Guraso eta anaia-aren partez. Ondo pasa eta muxu hanbi bat.



▶ Epa! Pena ematen digu zure egunean denak ez egotea, baina ziur ondo pasako duzula! Zorionak **viejisima** lagunen partez.



▶ Mila kilo zorion **Olatz** Lehengusu Ion, Asier, Unai eta amonaren partez. Muxu handi bat anaia Aitorren partez.



▶ Zorionak **Garazi** gaur 11 urte egin dituzulako. Etxekoen partez muxu handi bat.



▶ A ze hirukotia! Zorionak San Rokeko **sorgintxo**ei. Nereak hilaren 2an 5 urte egin zituen, eta Amaia eta Leirek gaur bina urte.



▶ Zorionak **bikote** eta ondo pasa zuen ezkontza egunean.



▶ Zorionak **Ane** eta **Unai**. Familiakoen eta lagunen partez muxu handi bana zuen egun berezian.



JOSE pintarak
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



BUKARTU S. Coop

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

[OKINDEGIA]



7 igandea IBARRENEA



[FARMAZIAK]

5	Ibañez
6	Bidasolo
7	Bidasolo
8	Etxeberría (Santa Ana)
9	Fernandez
10	Yudego
11	Zabaleta
12	Etxeberría (Santa Ana)

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaría	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Areiturre	943 74 80 19
•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

[5 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian
2 urtetik 6 urtera bitarteko
haurrentzat (euria bada, hurrengo
barixakura atzeratuko litzateke
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

22:00 OSKORRI & THE PUB IBILTARIA IKUSKIZUNA

Herriko Antzokian

[6 ZAPATUA]

12:30 BEGOÑA ERRASTIREN HITZALDIA

Elgoibarko Alkartetxan (Jausoro
Plazan)
Antolatzailea: Elgoibarko Eusko
Alkartasuna

13:30 18/98 EPAIKETAREN AURKAKO PLATAFORMAREKIN BAT EGITEN DUTEN HERRITAR MULTZOAREN ARGAZKI ATERATZEA

Plaza Handian

SEMANA DAS LETRAS GALEGAS JAIK

Maiatzak 5, barixakua

19:30 "Dia das Letras Galegas" delakoaren inaugurazioa
Manuel Lugris Freire jaunaren omenez
20:00 "Acordes" orkestraren ekitaldia
22:30 Eibarko "Adunia" Folk taldearen emanaldia
24:00 "Acordes" orkestraren ekitaldia

Maiatzak 6, zapatua

12:00 Chaves jaurtialdia, galiziar erara
12:30 Galiziako jaki bereziak dastatzea. Javier Ferreiro pul-
peiroaren eskutik
18:30 Hainbat eskualdetako taldeen emanaldia Partaideak:
"Haritz EDT", Valladolideko "El Pilar" folklore taldea eta
Bilbaoko galiza Etxeko "Terra Nai" gaita eta dantza taldea
20:00 Galiziako produktuen dastatzea
20:30 "Acordes" orkestraren emanaldia, goizaldera arte
24:00 Queimada herrikoia. Jose David Ferreiro druida han-
diaren eskutik
00:30 Aretoko dantzen erakustaldi bikaina. Jose Mari
Orbegozo dantza irakasleak eskainia

Maiatzak 7, domekia

10:30 Hildako bazkideen omenezko meza
11:30 Bilbaoko Galiza Etxeko "Terra Nai" gaita eta dantza
taldearen kalejira
13:00 "Terra Nai" gaita eta dantza taldearen ekitaldia
13:30 Elgoibarko "Azahar" dantza taldearen saioa
14:30 Bazkari ofiziala Galiziako Kultur Etxeko egoitzan
*Ekintza denak Aita Agirre Plazan izango dira

15:00 IV. SAN MIGELGO RALLYSPRINTA
 Etxebarriatik Elgoibar arteko errepidean
 Antolatzailea: Hamaika eskuderia

[7 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
 Herriko Antzokian
 Zuzendaria: Jose Antonio Osoro
 Egitaraua:
 "La Alhambra" (Llano); "Las dos comadres" (Labit); "Amanecer Granadino" (M.F. Arquelladas); "Las Bodas de Figaro" (W.A. Mozart); "Glenn Miller Story" (G. Miller).

[8 ASTELEHENA]

9:30 "IT KZGUNEA: INTERNETEO DOAKO IKASTAROA"
 KzGunean
 Maiatzaren 19ra arte
 16 urtetik gorakoentzat

18:00 AKUARELA IKASTAROA
 Astelehenetik ostegunera,
 18:00etatik 20:00etara
 Antolatzailea: Egur Arte tailerra
 Izen ematea: Aita Agirre plaza,
 erdiko atea, 2. pisua

19:00 BIDEZKO MERKATARITZAREN ERAKUSKETA
 Kultur Etxean
 Hilaren 12ra arte

[11 EGUENA]

18:30 IMHKO HEZIKETA ZIKLOEN ATE IREKIEN EGUNA
 Informazio saioa batxilergoko ikasle,
 guraso eta interesa dutenentzat.
 IMHko Karakate Gelan

[12 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA
 Plaza Handian
 2 urtetik 6 urtera bitarteko
 haurrentzat (euria bada, hurrengo
 barixakura atzeratuko litzateke
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

22:15 "OTEHITZARI BIRAKA" DANTZA IKUSKIZUNA
 Taldeak: Tantaka Teatroa eta Kukai
 Dantza Taldea
 Herriko Antzokian
 Sarrerak aurrez salgai: goizez,
 Kultura Sailean; arratsalde, Gazte
 Informazio Belegoan, martitzenetik
 barixakura, 16:00etatik 19:00etara
 (Kultur Etxeko 2. pisuan)

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Ice Age 2: El Deshielo»
 6, zapatua: 22:15
 7, domekia: 16:30-19:30-22:15
 8, astelehena: 21:30
 «La Casa de mi abuelo» (Z.K.)
 11, eguna: 21:30
 «Syriana»
 13, zapatua: 19:30-22:15

EIBAR, UNZAGA

«Mision Imposible 3»
 5, barixakua: 19:30-22:15
 6, zapatua: 17:00-19:30-22:15
 7, domekia: 17:00-19:30-22:15
 8, astelehena: 19:30-22:15
 9, martitena: 19:30-22:15
 10, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Volver»
 5, barixakua: 19:30-22:15
 6, zapatua: 17:00-19:30-22:15
 7, domekia: 17:00-19:30-22:15
 8, astelehena: 19:30-22:15
 9, martitena: 19:30-22:15
 10, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litekeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Ice Age 2: El Deshielo»



Zuzendaria: Carlos Saldanha.
 Marrazki bizidunak Iraupena: 90 minutu.
 Heroiak itzuli dira: Manny, mammut iletua, Sid nagia eta Diego sable hortzadun tigrea, eta nola ez, beti bere ezcurraren atzetik dabilen Scrat kattagorria. Izotz aroa bere azkenera iristen ari da, izotz guztia urtzen ari da eta animaliek ezagutzen ez zituzten paisaia zoragarriak ari dira agertzen geruza zuriaren azpian. Gure lagunek aurkituko dute non gozatua, eta ez da faltako izotz irristaketa sekuentzia zororik ere.

«La casa de mi abuela» (Z. K.)

Zuzendaria: Adán Aliaga.
 Antzezleak: Marina Pastor, Marita Fuentes.
 Marina (Marina Pastor), 6 urteko neskatxa bizi eta lotsagabea da. Marita (Marita Fuentes), berriz, 75 urteko bere amona. Filma honek bien artean sortzen den erlazio berezia erakutsi eta arakutzen du. Amonak eman nahi dion heziketa bere denboretakoa da, baina Marinak ez du hala moduz dena amonak esaten dion moduan onartuko, eta aurre egiteaz gain, bere jokamoldea aldatu nahi duen guztien aurka egingo du, imo eta sutuki. Emozio eta gatazka guztiak azaleratuko dira.

Atzera hegira



1981 . urteko apirilaren 26an, duela 25 urte, ateratakoa da erretratu zahar hau. Istorio bitxia du Xixongo El Molinon futbol zelaiaren ateratako argazki historiko honek. Izan ere, J.M. Etxaniz eta Roberto Merino realzale elgoibartarrak Realak eta Xixongo Sportingek jokatu beharreko partida baino ordu erdi lehenago zelaira jauzi egin eta ikurriña eta Asturiaseko bandera eskuetan zituztela, zelaiaren erdialdera korrika egin zuten, "lepoa jokatuz" adierazi digutenez, "polizia atzetik hasi baizitzaigun zer asmo genuen igarri orduko. Zorionez, erdialdera iritsi eta bandera eta ikurriña zabaldu eta mugitzen hasi ginenean Asturias eta Euskadi anaitzeko gure ahalegina ikusi ahal izan zuen estadio guztiak, eta garraisi batean lehertu zen, gure ekimena txalotuz. Ikaragarria izan zen! oilo ipurdia jarri zitzaigun bi zalegoen erantzuna ikustean. Zelaia leporaino beteta zegoen ordurako eta inori ez zitzaion axola partida aurrean, bitartean edo ondorenean euria egitea. Sekula ez ditugu ahaztuko Realak han irabazi zuen estraineko Liga Txapelketa eta El Molinonen bisitakoak. Orain, lehen eta beti aupa Realak!" Asturiaseko bandera eskuetan duena **J.M. Etxaniz** da eta aurpegia guztiz ikusten ez bazaio ere, **Roberto Merino** da ikurriña eusten ageri dena.



ESKERTZA

2006ko apirilaren 30ean, 99 urte zituela hil zen **Gerardo Bernardo Gabilonda**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

- ingeniaria izan eta ardura postuetan aritu
- lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean
- ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- euskaraz, gaztelera eta ingelesez ikasi
- atzerrian praktikak egin

ate irekiak

maiatzaren **13** an

goizeko **11:30** etan

... zatoz IMH Ingeniaritza eskola ezagutzera

zure txanda!

Informazioa:

IMH INGENIARITZA ESKOLA
Azkue Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel: 943 744 132
E-mail: ingeniaritza@imh.es
www.imh.es



ikasten
ala lanean?
Ikasi eta gainera lan egiten dut.



cesi Frantziako CESI
Ingeniari Titulu ofiziala



HEZIKETA ZIKLOAK

06-07
Ikasturtea

GOI MAILA

A eta D ereduak

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA

A eta D ereduak

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea-eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

ate irekiak

Maiatzak 11, osteguna 18:30

Ekainak 1, osteguna 18:30

Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako
Bereizitako Eskola eta Zentroak



zure ikasketak
zure lanerako

Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 7ra

Informazio gehiago:

IMH INGENIARITZA ESKOLA A
Azkue Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel: 943 744 132
amola@imh.es
www.imh.es

imh@imh.es
943 748 265
www.imh.es



OTEHITZAN BIRAKA

ELGOIBAR DANTZAN

Maiatzak 12
ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian



KUKAI - TANTTAKA

Gidoia eta Zuzendaria:
Mireia Gabilondo

Koreografia:
Jon Maya

Jatorrizko Musika:
Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal,
Rafa Rueda eta Mikel F. Krutzaga

HALA ERE...

Eibarko dantza garaikide taldea

Maiatzak 19
ostirala

22:15ean

Herriko Antzokian



Ama bat niretzat!

Carmen Ruiz Corralena

Maiatzak 21
igandea

16:15ean

Herriko Antzokian



KULTURA GALA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA